
**"ERLAITZ PAGOGAINA" 2.045.1 ZENBAKIA DUEN HERRI ONURAKO MENDIKO 15. UNADAN EGURRA ERABATEKO MOZKETA EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA. UNADA HAU IRUNGO UDALAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN KONTSORTZIATUTAKOA DA.**

## 1- Aurrekariak

1962 urtean Irungo udalak eta estatuak zuen "Patrimonio Forestal" artean sinatu zen kontsorzio bat, oinarrietan banatu zen balizko diru sarrerak nola banatuko ziren bien artean eta %55 a udalarentzat eta %45 patrimoniorako izango zela. 1962 urte horretan landatu zen Intsignis pinuarekin baina landaketak ez zuen aurrera egin, horren ondoren 1970 urtean Pinus nigrarekin landatu zen.

## 2- Ustiaketarn deskribapena

2.1 Kokapena 15. Unada Onura Publikoa duen Irungo Erlaitz Pagogaina mendian.




Ustiaketa eremua eta errepidea

2.2 Ustiatu behar dena

Espeziea: *Pinus nigra,* 1970 urtean landatutakoa. Egun, **pinuak osasun arazoak dituzte** eta neurtu gabe utzi dira ihartuta daudelako zuhaitzen ehuneko 10 bat inguru.

Benetan dagoena:

**2.064 ale *Pinus nigra* erabateko mozketan**

Bolumena* gutxi gorabeherakoa

**2.089 $m^3$** *errealera neurtuta azalarekin eta 7,5 cm tara

**3- Tasazioa**

| | |
|---|---|
| **Enkantearen oinarrizko prezioa:** | **83.560 €** |
| Prezio indizea: | **104.450 €** |

**BEZa %21ekoa prezio horietan sartuta dago**

Produktuak ordaintzeko merkataritza unitatea:
Esleipendunaren zorira

**4- Egiteko epea**

12 hilabete behin-betiko esleipena sinatzen denetik. Faunari eragozpenak gutxitzeko lanak etengo dira apirila, maiatza, ekaina eta uztailan.

**5. Baldintza orokorrak**

Ezaugarri Teknikoen Orri Orokorrean (75.08.21eko 200 zk. E.B.O.ko 1975.04.24 Ebazpena), eta Ezaugarri Teknikoen Orri Berezian (75.08.20ko 199 zk. E.B.O.ko 1.975.05.06 Ebazpena) xedatutakoak beteko dira.

**6. Baldintza bereziak**

6.1.**Tasak:** 565,48 €

6.2. Egurra ateratzeko bideak: gaur egun mendian daudenak, dauden bezalaxe. Behin betiko esleipena egiten den arte bakarrik bermatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Habitatak

Kudeatzeko zerbitzuak aterabideen egoera, eta eskatuko du uneoro erabiltzeko moduan egon daitezela eta, ustiaketa bukatu ondoren, bideen lurzorua, mendia entregatu zen garaian zegoen bezalaxe egon dadila.

Zerbitzu honek ez du bere gain hartuko, herri onurako mendiaren barruan ez dauden beste bide batzuk erabiltzerakoan edo horietarako beharrezko baimena ematerakoan sor daitekeen beste edozein erantzukizun.

6.3 Mendian dauden **itxiturak eta mangadak** egur ustiaketagatik kaltetzen badira ustiaketa aurretiko egoerara bueltatu beharko dira.

6.4. Egurra arrastaka eramaten duten makinak ezingo dira erabili mozketa egiten ari den tokian, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuaren baimena ez badute behintzat, beren lana egun dauden edo eraikitzekoak diren bideetan egin beharko dutelarik.

6.5. Lanak esleitu zaizkion egur enpresak Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak emandako baimena beharko du, bere eskumeneko zonetan egurra pilatzeko edo pisu-muga baimenduak gainditzen dituzten garraioak egiteko, Gipuzkoako Errepide eta Bideen 17/1994 Foru Arauak ezarritakoaren arabera.

## 7. Segurtasuna eta osasuna

Kontratistak laneko segurtasun eta osasunari buruz indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu, azaroaren 8ko 31/1.995 Legea, maiatzaren 30eko 773/1.997 Errege-Dekretua eta uztailaren 18ko 1.215/1.997 Errege Dekretua, lan-istripuari dagokion guztia beraren eta ez beste inoren erantzukizuna izango delarik. Kontratugile den administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango kontratistak ez baditu betebehar horiek betetzen.

## 8. Bestelako arauak

8.1. Uneoro, Zerbitzu honetako pertsonalak emandako jarraibide eta aginduak bete beharko dira, bai mozketari dagokionez, bai beste edozein oharpideri dagokionez.

8.2. Enpresa esleipendunaren eta Baso Administrazioaren artean lanak interpretatzeko joerari buruz gerta daitezken zalantza edo desadostasunak, Administrazioaren aldera erabakiko dira.

8.3. Bai Administrazioaren aurrean bai partikularren aurrean esleipendunak bere gain hartuko ditu lanaren ondorioz gerta litezkeen kalteak, batipat instalazio elektrikoei eta ubideen adarrei edo hirugarrengoei eta ustiapeneko langileei eginikoak.

8.4 Kontuan izan GI3631 errepidearen ondoan dagoela ustiatu behar den saila, eta horregatik, errepidearen segurtasunerako hartu beharreko babes neurriak hartu beharko direla.

8.5 Erabilera publiko haundiko eremua da, bertatik edo ingurutik pasatzen direlako hainbat oinezko bide: Red Comete, SL GI-1005 Elurzuloen bidea eta PR GI-1010 Aiako Harriko Tontorrei bira. Hori dela eta, inguruan basolanak daudela adierazteko kartelak jarri beharko ditu esleipendunak.

8.6. Basolanek irauten duten bitartean herrialde historikoan orri honetan azaltzen ez diren eginbeharrak sortuko balira, baso-suteak, euriteek kaltetutako bideak egokitu beharra, landaketa berrietatik kontrolik gabeko ganadua ateratzea, eta horrelakoetan, esleipendunak Administrazioaren esku jarri beharko lituzke aipatutako ekintza horietarako beharrezko baliabideak, beti ere duen ahalmenaren arabera eta Administrazioak eskatzen dion unean.

Donostian 2025ko Irailaren 19an

BASOETAKO ATALBURUA



Inma Lizaso

## ANEXO I

## ZUHAITZ KOPURUA KLASE DIAMETRIKOTAN BANATUTA

| C.D. | Nº PIES |
|---|---|
| 20-25 | 141 |
| 26-30 | 432 |
| 31-35 | 662 |
| 36-40 | 507 |
| 41-45 | 233 |
| 46-50 | 70 |
| 51-55 | 15 |
| 56-60 | 4 |
| 61-65 | 0 |
| >65 | 0 |
| Total | 2064 |

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| Titulua / Título: | Kontsortziatua. 2.045.1 Erlaitz Pagogaina. Undada 15 |
|---|---|

**Digitalki sinatua** / Firmado digitalmente por:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**ARIZTIMUÑO LARRAZA, Aranzazu**

**ZUZENDARI NAGUSIA**
DIRECTOR/A GENERAL

**Data** / Fecha: 2025/09/23 19:12:47

OLABIDE HUELGA, MIREN KOLDOBIKE titularraren ordez jarduten (45/2024 Foru Dekretua. Lehen xedapen gehigarria) / Actuando por suplencia de la persona titular OLABIDE HUELGA, MIREN KOLDOBIKE (Decreto Foral 45/2024, Disposición adicional primera)